

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

JAUREGI JENERALA 6



Egile eta data ezezagunak (segur aski Jose de Goicoa; 1894)
Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan

Deskribapena.

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1955eko fatxada planoko jasodura bat (jatorrizko teilatupea berritzearen emaitza) eta beste bi jasodura atzeraeman. Harlanduzko fatxada hirugarren oinera arte. Konposizioko eta apaindura tratamenduko batasun argia dago kale horretako 4tik 16ra bitartean –hirugarren oineko ateburuaren apaindurako desberdintasun txikiak salbu–, eta 15 cm-ko hurrenez hurreneko mailakatzeak ditu (14ren eta 16ren jatorrizko proiektua Jose de Goicoarena eta 1894koa da).

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baioen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (4., 5. eta 6. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.